

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

45/2022 Mozioa, maiatzaren 16koa, garraioaren sektoreari laguntzeko neurriei buruzkoa, erregaiaren prezioaren igoerak izan duen eragina arindu dadin

Arabako Batzar Nagusi hauetako Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren VI. Batzordeak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, mozio hau onetsi zuen:

45/2022 Mozioa, maiatzaren 16koa, garraioaren sektoreari laguntzeko neurriei buruzkoa, erregaiaren prezioaren igoerak izan duen eragina arindu dadin.

1. Arabako Batzar Nagusiek babestu egiten dute Arabako Foru Aldundiak hartutako neurria, Espainiako Gobernuak, erregaiaren prezioaren igoerak izan duen eragina arintzeko helburuarekin, garraioaren sektoreari laguntza ekonomikoak emateko onartu dituen neurriak aurreratu daitezzen; laguntza horiek profesional autonomoei eta pertsonak eta salgaiak garraiatzeko sektoreko enpresei zuzentzen zaizkie eta Ministerioak garraioaren sektoreko eragile ordezkariekin adostuak izango dira.

2. Arabako Batzar Nagusiek babestu egiten dute Arabako Foru Aldundiak onartutako neurria, garraioaren sektoreko autonomoen eta enpresen gastu kengarriaren muga ehuneko 70era arte handitu dadin, bai PFEZari zein Sozietateen gaineko Zergari dagokionez ere.

3. Arabako Batzar Nagusiek eskatzen diote Arabako Foru Aldundiari jarrai dezala lan egiten Arabako Lurralde Historikoko Errepide bidezko Garraioaren Ikuskaritza Planaren esparruaren baitan, hori baita Arabako garraioaren antolamenduan eta errepideen segurtasunean nahasmentu handienak sortzen dituzten arau-hausteak lehentasunez zaintzeko eta kontrolatzeko funtsezko tresna.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 16a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA